

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

4,43 milioi euro onartu dira 20 herrialdetan lankidetzako 41 proiektu eta programa finantzatzeko

Kopuru hori Nafarroako Gobernuak garapenerako emandako laguntza ofizialaren barnean sartzen da, aurtun 5,4 milioira heldu dena, 2015ean baino % 33 gehiago

Osteguna, 2016.eko irailak 29

Eskubide Sozialetako Departamentuak diru-laguntzen bi deialdiak ebatzi ditu: haien bidez, aurtun 4.434.068 euroekin finantzatu dituzte garapenerako lankidetzako 41 proiektu eta programa Afrika, Amerika eta Asiako 20 herrialdetan.

Babestutako ekimenak honako hauei lotuta daude: osasuna, hezkuntza, elikadura, emakumeen sustapena, haurtzarora, partaidetza, ingurumena, nekazaritza, bakea eta giza eskubideak, beste arlo batzuen artean.



Nafarroako Gobernuak lankidetzako 41 proiektu eta programa finantzatu dituzte aurtun garapen bidean dauden herrialdeetan, 4,4 milioi euro, guztira.

Zenbateko hori Nafarroako Gobernuak garapenerako emandako laguntza ofizialaren barnean sartzen da, aurtun [5,4 milioi euro](#) iritsi dena, 2015ean baino % 33 gehiago. Zenbateko horrekin finantzatu dira ere: garapenerako hezkuntza programak, sentsibilizazio-jarduerak, larrialdi espezializatuaren giza ekintzak edo elikadura laguntza Saharako biztanle errefuxiatuentzat, beste ekimen batzuen artean.

Programak eta proiektuak

Zehazki, [lehenengo deialdi](#)arekin lankidetzako [32 proiektu urtean](#) diruz lagundu dira (2.720.000 euro), ondorengo 19 herrialdeetan egingo direnak: Aljeria, Bolivia, Burkina Faso, Kolonbia, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Haiti, India, Kenya, Mauritania, Mexiko, Mozambique, Nikaragua, Niger, Palestina, Peru, Kongoko Errepublikak Demokratikoa eta Ruanda.

Bestalde, [bigarrenarekin](#), 1.714.068 bideratu dira garapenerako 9 [programa ekonomiko eta sozial](#) finantzatzeko, urtebete baino gehiagokoak direnak. Laguntza horien onuradunak bost herrialde dira: Bolivia, El Salvador, Guatemala, Mali eta Peru.